

[Berria.info](#) » [Papereko Edizioa](#) » [Harian](#)

2012-10-12

Independentziari buruz egin du gogoeta Pako Aristik bere azken liburuan

'Independentziaren paperak' saiakeran, historialarien testuak, prentsako testu zatiak eta ipuinak bildu ditu

ARNAITZ LASARTE DONOSTIA

«Liburua hiru lagunek irakurri zuten argitaratu aurretik: batek esan zidan txinpartak aterako zituela, besteak hautsak harrotuko zituela, eta, hirugarrenak eragina izango zuela». Pako Aristik bere azken saiakera aurkeztu zuen atzo, Donostian: *Independentziaren paperak*. Politikariek landutako hizkuntza «ilunetik» alenduta, Euskal Herriak independentziarekin izan duen «grina» eta izan dituen «desenkontruak» hartu ditu hizpide. Saiakeran bildu ditu filosofoen testuak, historialarienak, ipuinak, hedabideetan argitaratutako testu zatiak... Kritika egin du, baina kritikatuari «lagundu» nahi dion kritika: «Ikasi behar dugu politikaz haserretu gabe hitz egiten».



Aristik atzo aurkeztu zuen bere azken liburua, Donostian. / GARI GARAIALDE / AFP

Duela lau urte hasitako ikerketaren emaitza da liburua. Aristik «egoera nahasian» ikusten zuen Euskal Herria: bi estatutan eta hainbat administrazioetan zatituta, euskara egoera zailean, herritarren beren buruetan mugak zituztela... Egoera horretaraino zergatik iritsi zen ikertzen hasi zen orduan, «Euskal Herriaren egoera gure ezintasunak eragin duen, edo kanpo indarren eraginkortasunak». Historia liburuei begiratu bat eman die, teoria politikoak, gai horien inguruan mintzatzen diren jendearen testuak. Ikerketaren ondoren, ondorio batera iritsi da: Euskal Herrian okupazio baten historia dago. «Herri hau noizbait izan da egitura politiko bat izan duen herri bat».

Hortik abiatuta, ohartu da historian beti azaleratu dela independentziaren gaia: «Egon da menderen batean ezkutatu samar, baino gero beti agertu izan da; berriro hondoratu izan da, baina beti agertu da gero independentziaren haria». Hari horri nola eutsi zaion kontatu du liburuan, eta hari mataza horrek «nahasita» nola jarraitzen duen.

Historia kontatzerakoan erabili den hizkuntzaren inguruan ere egiten da gogoeta liburuan: «Gure historia kontatzeko okupatzailearen hitzak erabili dira. Zure proiektua lortzea nahi ez duen etsai hori bezala mintzatzen bazara, galduta zaude».

Liburua kritikoa izanagatik ere, irtenbideak aurkeztzen saiatu da Aristi: «Nik ekarpenak egin ditut, nire ustez herri honetan argitu behar diren kontu asko argitzeko bidea ematen saiatu naiz». Gai «labainkorrez» idatzi du: «Gai labainkorrek normal bihurtzean hasiko da egoera normalizatzen».

Albisterik...

IRAKURRIENAK

Bozkatuenak

Bidalienak

- 1 Baumgartnerrek erronka gainditu du
- 2 'Parot doktrinaren' aurkako helegitea jarriko dute Estraburgon hogeita presoren abokatuek
- 3 Otegi zigortzeak Espainiaren "ahultasuna" adierazten duela uste du ezker abertzaleak

